

2. FINAL-LAUDENAK. LEITZA

Aurkezlea: Fernando Anbustegi

8KO NAGUSIA

Ainhoa Agirreazaldegi eta Ibon Ajuria

Parkean pasean zabilatzatela, zuen alaba gaztea ikusi duzue norbaitekin musuka.

Etxahun Lekue eta Iñigo Olaetxea

Astero joaten zarete mendira elkarrekin. Gaur, abiatu orduko ohartu zarete ehiza-denboraldia hasi dela; ehiztariz beteta daude bazter guztiak.

Xabier Sukia eta Iñigo Manzisidor "Mantxi"

Enpresa bereko bi akzionista zarete. Azken urtebetean zuen enpresako 12 langilek egin dute beren buruaz beste.

8KO TXIKIA

Ibon Ajuria eta Etxahun Lekue

Ibon Ajuria, Etxahun Lekue zure laguna ez da etxetik asko ateratzen, baina gaur animatu eta gauz irten zarete. Gaur aurrera doa, eta barra gainera igo da Etxahun Lekue dantzatzera.

Iñigo Manzisidor "Mantxi" eta Ainhoa Agirreazaldegi

Alkoholemia-kontrola ikusi duzue aurrez aurre, eta edanda zoazte biak. Kontrola saihesteko, autoa aparkatu eta elkarri muxuka hastea proposatu dizu Ainhoa Agirreazaldegik, Iñigo Manzisidor "Mantxi".

Iñigo Olaetxea eta Xabier Sukia

Bikotea zarete. Lehenbiziko aldiz joan zarete zinera. Xabier Sukiak hautatu du zer pelikula ikusi, eta segituan lo gelditu da.

PUNTUARI ERANTZUNAK

Ainhoa Agirreazaldeg

Leitzak eta kirolak / lotura zuzena
Harri-jasotzaileak / etxe bakoitzean
Harriak jasotzeko / balio al duzu?

Ibon Ajuria

Perretxiko ugari / mendixka hauetan
Gipuzkoarrek dute / lapurraren fama
Zenbat ordaintzen duzu / onddo bakoitzeko?

Etxahun Lekue

Dotore zaude hemen / oholtza gainean
Zuk lisatu al duzu / gaurko kamiseta?
Oparitua al da / soinean duzuna?

Iñigo Olaetxea

Pilarika eguna / dugu astelehena
Ospatzen ote duzu / Hispanitatea?
Opor-festa ugari / santuen kontura

Xabier Sukia

Euskal arrantzaleak / bahituta daude
Arrantzale bizitza / gogorra ta latza
Arrainen bila doaz / oso urrutira

Iñigo Manzidor "Mantxi"

Orbela mendietan / pilatzen hasita
Gaztainak ere laster / morkotsetik kanpo
Galtza motzak etxean / uzteko garaia

10EKO TXIKIA

Ibon Ajuria eta Xabier Sukia

Bikotea zarete. Seme-alaba eta biloba guztiak etortzen zaizkizue larunbatero bazkaltzera. Zazpiak dira, eta oraintxe joan dira denak. Astero bezala, begiak distiratsu sumatu dizkiozu Xabier Sukiari, Ibon Ajuria.

Ainhoa Agirreazaldeg eta **Iñigo Olaetxea**

Anaiak/Anai-arrebak zarete. Gurasoak adinean aurrera doaz, eta bakarrik bizitzeko zailtasunak dituzte. Zuen artean zaintzeko txandak antolatzen hasi zarete, eta Iñigo Olaetxeak ez omen dauka egun bat ere libre.



Etxahun Lekue eta Iñigo Manzisor "Mantxi

Zuk Etxahun Lekue, duela hilabete, lagun bezala soilik maite zenuela esan zenion Iñigo Manzisor "Mantxiri, eta ez duzu harrezkero ikusi. Gaur, topo egin duzue elkarrekin.

KARTZELA

Diru asko eskaini dizute. Baina ez zaude prest.